

Baiña orduan jazo zan jazo zana! Ilintiak ikutzeaz batera, emakumearen eskuak sapoz ta sugez bete-bete egin ziran: ilintiaren barrutik urteniko sapo-suge iguingarriak ziran. *Aldrabasketa* basetxeko baztarrak be, pizti b' durgarriz bete ziran.

Alako zoritxarra ikusita, sonar-emazte gaisoak negar baten asi ziran; eta ikara baten igaro ebezan urrengo egunak be.

Azkenez, erriko abadeari dei egitea erabagi eben. Eta abadeak, etxeko bazterrak ur bedeinkatuz busti ondoren, pizti guztiak jaurti ebazan.

V

MUTILLA TA MUSKERRA

Domeka-goiz baten, *Oxintxueta*'ko mutil gaztea, ez mezarik entzun, ez ur bedeinkaturik artu, ezetariko kristau-bearkunik be bete bagarik, patxaraz-patxaraz basora joan zan.

Mutilla, joan eta joan joian bidean; eta aurrera ta aurrera egiñaz, mendi gaillurrerantz egiten eban beti. Eta bide-zati aundia orrela igarota, zastraka arte batera eldu zanean, pizti narrazti batek ezkerreko oiñean, «zart!», min bizi mingarria egin eutsala konturatu zan. «Ai ene!» aundi bat egiñaz begiratzen dau, ta musker aundi batek bere oiñean agoa ezarrita cukala ikusi eban.

Estutu zan; larritu zan; eta esku-makilleaz zartada errimeak emoten eutsazanarren, muskerrak ikararik be ez, gogor bertan.

Ori ikusita, mutilla, inguruetara begi luzez begiratuta, laguntza-eske deadar baten asi zan.

Bere deadar zolietara, atsotxo bat agertu zan. Eta atsotxo zaarra, mutillaren oiñean alako musker aundia ikusi ebanean, arrituta gelditu zan. Eta zur eta lur eginda, bere esku biak buruan ebazala, mutillari eruki aundiz esan, eutsan:

—A, mutil! Ederra daukak aldean! Gaur, domekaz, mezarik entzun dok?

—Ez, ba, ez dot entzun —erantzun eutsan mutillak negar-muzkeriz.

—Eta ur bedeinkaturik artu?

—Ezta...

Kristau-bearkunak ez ebazala bete ikusi ebanean, atsoak barrero be bere esku biak burura jaso ebazan; eta alan luzarotxoan egonda gero, tamal-tamalez esan eutsan:

—Ire galdua, mutil! Ori orrela ba'dok... orain pizti orren agoa ire aragitik aldentzeko, iru erritako elizetako kanpaik amar miñituren ba-

rruan jo bear izango yoek. Bestela... ire zoritxarraren zoritxarra! Muskerra oiñean dokala, or egon bear izango dok betiko...

Berba bildurgarriok entzun ondoren, mutillak garratzago egiten eban negar: amar miñituren barruan iru erritako kanpaiak jotea, gauza gatxa izango zala-ta.

Negar ugari eginda gero, bere begiak begirakune itunez zuzenduta, atsoari abots illunez itandu eutsan:

—Eta... amar miñituren barruan, iru errietako kanpaiok, nok joko dauz?

—Besterik ezean, neuk joko yoadaz, mutil... —erantzun eutsan atsoak errukiz—. Ori egiteko, eure pekatuetaz damututa agoan ala ez jakin bear, baiña... Damu az, eztok?

—Bai, damu naz —erantzun eutsan mutillak bular-joka.

Orduan, atsoa, «ondo yagok» esanda, iru erritara joan zan; eta euretariko elizetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan.

Lenengo erriko kanpaiak, bere otsaz batean, auxe esan eban: «Talan, talan: mezarik entzun ez daualako, muskerra oiñean».

Bigarrenekoak, barriz: «Txilin, txilin: ur bedekaturik artu ez daualako, muskerrak min egin» .

Irugarrenekoak, ostera: «Tolon, tolon: txarto egiñaz damutu dalako, oraintxe bertan zorian».

Eta azkenengo kanpai-otsaz batera, muskerra mutillaren ondotik arrapaladan aldendu zan; eta, bide-zidorretik arin-arinka joanda, sasipe baten sartu zan.

Olan, mutilla muskerraren agotik askatuta gelditu zan, eta oratuaren czaugarririk be ez yakon geratu.

